

LAGUNEN MESFIDANTZA

Oihana Ciaurriz, 13 urte

Arrangoitze

Egun hartan, maiatzeko egun eder hartan, lau urteko haur bat adoptatu zuen Winslot familiak.

Lehen aldiz ikusi nuelarik, ttipia zen, beti bere amaren gonetan gordea. Haren benetako izena Romla zen, baina bere buraso ordeek Ana deitu zuten. Ileak xoxoaren lumak bezain beltzak zituen, begiak, aldiz, urdin ilunak, dirdirka beti; benetan zoragarria!!

Uros bizi zen bere familian, eta urteak joan ahala hobeki ezagutzen hasi nintzen. Biziki ausarta zen eta zorionsua, baina zoritxarreko egun batez haren lagun hoberena hil zen auto istripu batean. Harrezkero, beti bakarrik gelditzen zen, tristerik.

Beste lagun batzuen atzemaitera entseatu zen, baina haiek trufa egiten zioten eta bakarrik uzten zuten. Bere lau urte haietarik, uros zen denboratik urrun zegoen; beti edertasun bera atxikia zuen, baina haunditu zen: neska gazte liraina bilakatua zen. Anitzetan, bere bisaiaren gainean nigar mal-koak isurtzen zitzaizkion.

Goiz hartan, igandea zenez, ibilaldi baten egitera joan zen, lehengo denbora onez oroitzera. Lasaiki zebilela, mutiko gazte batekin tuputs egin zuen:

– Barkatu!! Benetan, barkatu!!, erran zion azken honek, ez dut aitzina begiratu! Al, erran zion eskua luzatuz, Max deitzen naiz. Eta zu?

– Ez da ezer! Ana deitzen naiz.

– Zure begiak bezain ederra duzu izena.

Ana gorritzen hasi zen eta irriño batekin erantzun zion (benetan gisakoa iduri zuen hark!), esker-
rrak emanaz. Orduak eta orduak egon ziren elgar-
rekin hizketan.

Maxek 25 urte zituen, izigarri haundia zen; ileak
biziki argiak zituen eta begiak ferdeak. Umore ona
zuen, eta beti laguntzeko prest zen. Elgarrekin jan
zuten ostatu batean eta aspalditik irri egitetik gel-
ditu zen neskari, azkenean, Maxek irri eginarazi
zion. Elgarrekin anitz egun pasatzen zituzten eta
hilabetea zuen elgar ezagutzen zutela. Anak dena
zekien Maxez eta mutilak dena neskaz.

Jada urtea zuen elgar ezagutzen zutela.
Uztailaren 8a zen, eta horren ospatzeko kanpoan
askaltzea erabaki zuten. Lakuaren bazterrean jaten
ari zirela, Max hasi zitzaion gonaren altxatzen.
Momentu horretan, harekin pasatutako une goxo
guzien oroitzapenak buruan pasatu zitzaizkion.
Entseatu zen zalapartaka aritzera, baina mutila
azkarregia zen beretako...

Arratsean, etxera sartu zen deus gertatu ez balitz
bezala eta bere ama topatu zuen:

– Orduan Ana, egun on bat pasa duzu? Ongi doa
Max?

– Bai ama, dena ongi doa.

– Kontent naiz zuretako, ikusten duzu laster egin
duzula lagun berri bat!

Ana, korrika, bere ganberara igo zen, eta gor-
putzean zituen malko guziak askatu zituen.

Berreraikia zuen zoriontasun guzia mila pusketan eroria zen. Uste zuen egiazko lagun bat atzemana zuela, baina lilura bat baizik ez zen izan: bere biziak berriz ere infernuaren eite zuen.

Bere amak ulertu zuen “johan ez zen” zerbait bazela eta Ana ikustera joan zen:

– Zer duzu, maitea? Erraidazu niri, zure lagun-
tzeko prest naiz...

Anak, bihotzean zuen guzia ezin atxikiz, dena kondatu zion. Amak aholkatu zion elgarrekin joanen zirela epaile baten ikustera. Neskatzak haren kontseilua segitu zuen, eta herriko justizia jauregi-
ra joan ziren. Jauregiaren aitzinera arribatzean, ama-alabak harrituak gelditu ziren. Alimaleko erai-
kin baten aurrez-aurre aurkitzen ziren, eraikina xuri xuria en eta leiho marroinak zituen, urrez inguratuak. Sartzean, alimaleko tokia zela ohartu ziren eta alde guzietan atea zirela. Haien bisaie-
tan kezka ageri zen:

– Egunon, barkatu gogaitzeagatik, zioen Anaren amak idazkariari, nahi nuke Lupont jaunarekin mintzatu, hitzordu bat hartu dut.

– Egunon zuei ere, andereak, eskuinean hama-
bostgarren atea.

– Milesker!

– Deusetaz, pasa egun on bat!

Beren eleketa hor gelditu zen, atearen aitzinera iritsi ziren eta atean jo:

– Egunon Lupont jauna, Amelie Winslot naiz, Anaren ama.

– A bai! Egunon, sar zaitetze eta hor jarri. Orduan: Ana, entzuten zaitut.

Anak dena kondatu zion, zailtasun haundiene-kin, eta nigar zotinka hasi zen. Lupont jaunak erran zion ez kezkatzeko eta galdetu zion xuxenki Max non bizi zen, arrastarazteko.

– Eginahal guzia eginen dut zure laguntzeko eta bi egun barru deituko dizut berrien emaiteko.

– Ados, milesker anitz, jauna.

Eta ama-alabak etxera sartu ziren.

Anak gau txarra pasatu zuen, ideia asko zerabil-tzan buruan eta beldur haundia zuen. Gainera, Lupont jaunak etxera deitu zuen erraiteko Max arrastatua zutela eta, horrez gero, beste asko gau txar pasatu zituen.

Epaileak deitu zuen erraiteko jujamendua biha-ramunean zela eta abokatu bat bazutela. Anak ez zuen onartu epaiketari parte hartzea; ez zuen Maxen bisaia ikusi nahi. Bakarrik jakin zuen bere lehengo lagunak hiru hilabeteko presondegia bildu zuela.

Hiru hilabete haiek goxoan iragan zituen nes-kaixak, baina beldurrez ikaran zen: Max egun ba-tzuen buruan askatua izanen zela jakiteak berak...

– Ez kezkatu, Ana, dena ongi pasatuko da eta gai-nera, egun, egun osoa kolegioan iraganen duzu.

– Bai arrazoi duzu, ama, zure laguntzarengatik milesker bihotz-bihotzetik!

Amak erantzun zion ez zela ezer, dena eginen zuela beretako, jakinez bere alaba bakarra zela, eta nehor baino gehiago maite zuelako.

Ana lasaiki kolegiara joan zen eta egun aski ona pasatu zuen. Baina kolegiotik itzultzean, irteeran Max eta bere lagunak han zituen bere goaitan. Inoiz baino beldur haundiagoa zuen Max hasi zitaiolarik mintzatzen:

- Konfiantza egiten nizun, Ana, baina dena kondatu behar izan duzu; orain, egin didazun guzia pagaraziko dizut!!!

Anak ez zuen hitzik ateratzeko indarririk, dardarka hasi zen. Momentu horretan, Maxen bi lagunek besotik harrapatu zuten eta beste bik zangotik. Garrasika hasi zen, baina berantegi zen: joa zuten basaki eta zalukara aldegin zuten. Baina bere xoko ilunetik ikusten zituen eskapatzen, eta urrunetik Maxek zioen:

- Hobe duzu zuretako ez nehoi deus erraitea; bestela, benetan, hor hilko zaitugu!!!

Anak ez zuen gehiago ezagutzen hastapenean zuen lagun goxo eta arretatsua; ezatsegina eta gaiztoa bilakatu zen Max. Aldi hartan, Anak mezua ongi ulertu zuen eta erabaki zuen nehoi ez ziola deus erranen...

Etxera gordezka sartu zen eta arrats guzian ez zen atera. Gainera, aste guzian ere ez zen atera; bere ama goizik lanera joaiten zenez, etxean egoiten zen.

Bere zauri guziak, azkenean, orbaindu ziren eta orduan bai, atera zen bere ganberatik. Egund hartan, bere ama irri zabal batekin etorri zitzaion:

- Baditut bi berri zuretako; lehena: Max hil dela istripu batean eta bigarrena etxez aldatuko garela: joanen gara zure amaxi eta kusiekin bizitzera!

– Oh! Zer bikaina! Milesker, ama!!

Ikusten zen uros zela handik joaiteaz, lehengo memento txarren ahantzeko; baina, beste alde batetik, triste zela ere: Max lagun haundia izan baitzuen urte batez. Nigar malko bat erori zitzaion...

Gaur egun, neska gazteak arazoak zituen garaia urrun da eta baita lau urtetan ezagutu nuena ere; gaur egun nire emaztea da eta uroski bizi gara hiru haurrekin...